

6. artikulua.–Konpententziak eta oinarrizko konpetentziak.
7. artikulua.– Oinarrizko zehar-konpetentziak.
8. artikulua.– Diziplina barruko oinarrizko konpetentziak.
9. artikulua.– Konpetentzien arabeko hezkuntzaren printzipio metodologikoak.
10. artikulua.– Elebitasuna eta eleaniztasuna
11. artikulua.– Hizkuntzen trataera integratua eta integrala.
12. artikulua.– Informazio eta Komunikazio Teknologia txertatzea irakaskuntza- eta ikaskun-tza-prozesuetan.

II. KAPITULUA

OINARRIZKO KONPETENTZIAK

6. artikulua.– Konpetentziak eta oinarrizko konpetentziak.

1.– Konpetentzia da irakaskuntza- eta hezkuntza-etapa bakoitzeko eduki propioak modu integratuan aplikatzeko gaitasuna, jarduerak behar bezala egitea eta arazo konplexuak modu eraginkorrean ebaztea helburu dituen.

2.– Pertsona guztiek beren burua errealizatzeko eta garatzeko, herritar aktiboak izateko, gizarteratzeko eta lan egiteko behar dituztenak dira oinarrizko konpetentziak.

3.– Oinarrizko konpetentzia horiek izan daitezke zeharkakoak edo diziplina barrukoak.

4.– Oinarrizko Hezkuntza amaitzean, ikasle guztiek oinarrizko konpetentziak garatuta izan behar dituzte helduaroari ekiteko, bai eta konpetentziok garatzen, mantentzen eta eguneratzen jarraitzeko ere, etengabeko ikaskuntzaren bidez.

5.– Ikasleak oinarrizko konpetentzia horiez modu eraginkorrean jabetzeko, ikastetxeek jarduera integratuak diseinatuko dituzte, ikasleek konpetentzia bat baino gehiago ikas dezaten aldi berean.

7. artikulua.– Oinarrizko zehar-konpetentziak.

1.– Bizitzako alor eta egoera pertsonaletan, sozialetan, akademikoetan eta lanekoetan –diziplina-arlo guztietan nahiz eguneroko bizitzan–, arazoak eraginkortasunez konpontzeko behar direnak dira. Arlo edo ikasgai guztietan batera lan eginez sustatu eta sendotu behar dira, eta bizitzako alor eta egoera guztietan integratuz eskuratzen eta aplikatzen dira.

2.– Honako hauek dira oinarrizko zehar-konpetentziak:

a) Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.

Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea, ganoraz eta egoki komunikatu ahal izateko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.

b) Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.

Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea, eta ikasitakoa mobilizatzea eta beste testuinguru eta egoera batzuetara eramatea, norberaren ikas-kuntza modu autonomoan antolatzeko.

c) Elkarbizitzarako konpetentzia.

Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasunez parte hartzea, eta norberari aitortutako eskubideak eta betebeharrak besteri aitortzea, norberaren zein guztion ongirako.

d) Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.

Ekimena izatea eta ekite-prozesua erabakitasunez eta eraginkortasunez kudeatzea testuinguru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihurtzeko.

e) Izaten ikasteko konpetentzia.

Bizitzan zehar agertzen diren sentimendu, pentsamendu eta ekintza pertsonalez gogoeta egitea eta haiek sendotzea edo egokitzea, haien gaineko balorazioaren arabera, bere burua etengabe hobetuz pertsona osorik errealizatzeko.

8. artikulua.– Diziplina barruko oinarrizko konpetentziak.

1.– Diziplina barruko oinarrizko konpetentziak dira, hain zuzen, bizitzako maila pertsonalean, sozialean, akademikoan eta laborean arazoak eraginkortasunez konpontzeko behar direnak, eta diziplina-arloren batekin erlazionatutako baliabide espezifikoak mugiarazte eskatzen dute. Diziplina-matrize bat dute oinarrian, arloren bateko arazoan eta egoeren bitartez eskuratzen dira, baina diziplina-arlo bateko edo batzuetako arazoak eta egoerak konpontzeko aplikatu daitezke.

2.– Honako hauek dira diziplina barruko oinarrizko konpetentziak:

a) Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia.

Hitzeko eta idatzizko testuak egokiro erabiltzea –euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean gutxienez–, bizitzako hainbat alorretako egoeratan, eraginkortasunez eta hizkuntza-aniztasuna errespetatuz. Literatura-hezkuntza garatzea ere bai, nor bere burua eta inguruko mundua hobeto ezagutzeko.

b) Matematikarako konpetentzia.

Jakintza matematikoa aplikatzea bizitzako premiekin zerikusia duten arazoak interpretatzeko, deskribatzeko, azaltzeko eta haiei erantzuteko, arloaren berezko pentsamendu- eta adierazpen-moduak eta tresnak erabilita.

c) Zientziarako konpetentzia.

Jakintza eta metodologia zientifikoa modu koherentean, egokian eta zuzenean erabiltzea sistema eta fenomeno naturalak interpretatzeko, eta aplikazio zientifiko-teknologikorik esanguratsuenak erabiltzea hainbat testuingurutan, errealitatea ebidentzia zientifikoaren ikuspegitik ulertzeko, eta bizitzako alor eta egoera guztietan erabakiak arduraz hartzeko.

d) Teknologiarako konpetentzia.

Produktu eta sistema teknologikoak zentzuz garatzea eta erabiltzea, jakintza teknikoak eta beste adar batzuetakoak metodikoki eta eraginkortasunez aplikatuta, egoera interesgarriak ulertzeko eta konpontzeko eta produktu eta zerbitzu berriak eskaintzeko, eta emaitzen berri ematea, hobetzeko edo erabakiak arduraz hartzeko prozesuekin jarraitzeko.

e) Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.

Nork bere burua, bere taldea eta bere mundua ulertzea, gizarte-zientzien ezaupideak eskuratuz, kritikoki interpretatuz eta erabiliz, eta haien prozedurak eta metodologiak baliatzea, bizitzako ohiko egoeretan modu autonomoan jarduteko, herritar gisa, eta, hartara, gizarte guztiz demokratiko, solidario eta inklusibo bat garatzen laguntzeko.

f) Arterako kompetentzia.

Hainbat kultura- eta arte-adierazpen ulertzea eta kritikoki baloratzea, garai eta erabilera aniztakoak, faktore estetikoek pertsonen eta gizartearen bizitzan duten garrantziaz ohartzeko. Artearen hizkuntzak ezagutzea eta haien kodeak erabiltzea mezu artistikoak sortzeko eta haien bidez adierazteko eta komunikatzeko, ekimena, irudimena eta sormena erabiliz.

g) Kompetentzia motorra.

Norberarekin eta besteekin, bai eta inguru fisiko eta kulturalarekin lotuta dauden esparru motoreko egoerei aurre egitea modu autonomoan, kritikoan, sortzailean eta espresiboan. Horretarako, bada, jokaera motorra garatzen lagunduko duten ezagutzak, prozedurak eta jarrerak integratu beharko dira, bizi-estilo osasuntsu baten bitartez ongizate integrala lortzen lagunduko duten jarduerak fisiko eta kirol-jarduerak praktikatzeko ohiturak hartuz.

9. artikulua.– Kompetentzien araberako hezkuntzaren printzipio metodologikoak.

Hezkuntza-eskumenak dituen sailak ondorengo printzipio hauetan oinarritutako metodologia bat sustatuko du:

1.– Inklusibitatea eta zuzentasuna aplikatzen direla bermatzeko, hezkuntza-eskumenak dituen sailak kompetentzia guztien garapena eta ikasle guztien arrakasta ongien bermatzen duten ikaskuntza- eta irakaskuntza-metodologiak sustatuko ditu.

2.– Kompetentzien araberako pedagogiak ezaugarri nagusi hauek ditu:

a) Problema-egoerak konpontzea, eskura dauden baliabideak modu integratuan erabiliz.

b) Eskolaren xede nagusia ez da informazioak eta ezagutzak transmititzea, oinarrizko kompetentziak garatzea baizik.

c) Adierazpenezko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak baliabideak dira, baina ezinbestekoak dira problema-egoerak konpontzeko.

d) Oinarrizko kompetentziak garatu ahal izateko, egoera errealeko jarduerak proposatu behar dira, eguneroko bizitzako problema nagusiak jakintzarekin lotuz.

e) Oinarrizko kompetentziak ganoraz ikasteko, ikasleak modu aktiboan inplikatu behar du jakintza bilatzen, ikasten, esperimendatzen, hausnartzen, aplikatzen eta komunikatzen.

f) Gaitasunak garatzeko, irakaslea ikaslearen ikaskuntzaren tutorea da, eta, horretarako, haien ikaskuntza-prozesuak diseinatu, planifikatu, antolatu, estimulatu, lagundu, ebaluatu eta birbideratu behar ditu.

10. artikulua.– Elebitasuna eta eleaniztasuna.

1.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailak elebitasuna bultzatuko du hezkuntza eleaniztun baten barruan, hizkuntza-ereduak hobetzen eta garatzen lagunduz. Horretarako, lehentasunezko tratua bermatuko du euskararentzat, bi hizkuntza ofizialen erabilera sozial desorekatua konpentsatzeko,

ikasleek Oinarrizko Hezkuntza amaitzean komunikazio-konpetentzia praktikoa eta eraginkorra izan dezaten euskaraz nahiz gaztelaniaz, eta atzerriko lehen hizkuntzan ere nahikoa. Hori guztia, atzerriko bigarren hizkuntza batean oinarrizko ezagutzak lortzea baztertu gabe, hizkuntza-proiektuan hala jasoa duten ikastetxeetan.

Edonola ere, bi hizkuntza ofizialen hizkuntz eta literatur komunikaziorako konpetentziaren erreferentzia-maila ikasle guztientzat berdina delarik, ikasleen eta haien ingurunearen baldintza soziolinguistikoak ere hartuko ditu aintzat, eta, horrenbestez, ikastetxeek baldintza horietara egokituko dituzte beren Hizkuntza Proiektua eta Curriculum Proiektua, eta eragile aktiboak izango dira hizkuntza normaltzeko prozesuan.

2.– Bi hizkuntza ofizialen erabilera oreka eta berdintasuna bilatzea da hezkuntza-sistemaren xedeetako bat, eta euskarak gizarte-erabilera desorekatua eta ahula duenez gaztelaniaren aldean, euskara hezkuntza-komunitatearen jardura guztietan adierazpide normala izan dadin bultzatu eta bermatu behar du hezkuntza-eskumenak dituen sailak.

3.– Ikastetxeek euskara eta gaztelania landuko dituzte Oinarrizko Hezkuntzan, ikasleek eskuratu ahal izan ditzaten bi hizkuntza horiek ulertzeko eta ahoz eta idatziz adierazteko trebetasunak, eta biak hala biak erabil daitezzen eremu pertsonalean, sozialean eta akademikoan.

4.– Elebitasunetik abiatuz ikasleak eleaniztunak izateko bidean aurrera egiteko, atzerriko hizkuntzen ikaskuntza eta erabilera sendotzeko neurriak hartuko dituzte ikastetxeek, eta, pixkanaka, beren hizkuntza-proiektu eta curriculum-proiektuen barruan arlo edo ikasgai ezberdinetako curriculum-edukiak atzerriko hizkuntzan irakasten hasi ahal izango dira, betiere, Dekretu honetako 11. artikuluan ezarritako printzipioekin bat.

5.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailak behar diren neurriak ezarriko ditu ikastetxeetan arloak edo ikasgaiak, pixkanaka, atzerriko lehen hizkuntzak irakasten has daitezzen, dekretu honen bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitako hezkuntza-sistema hobetzeko planari jarraituz.

11. artikulua.– Hizkuntzen trataera integratua eta integrala.

1.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailak hizkuntzen trataera integratua eta integrala sustatuko du.

Horrek arreta berezia ematen dio ikasketak hainbat hizkuntzatan emateari, komunikatzeko konpetentzia eleaniztun bat lortzeko asmoz. Hizkuntza bakoitzak berezkoa duena lantzea eta denek berdina dutena partekatzea da, betiere, ikasleak modu egokian eta eraginkorrean erabiltzen duelarik egoera bakoitzak eskatzen duen hizkuntza.

Hizkuntzen trataera integralean, irakasle guztiek –hizkuntzetakoek direnek nahiz ez direnek– elkarrekin aritu behar dute komunikaziorako konpetentzia garatzen. Horretarako lagungarriak dira arlo edo ikasgai bakoitzeko jakintzen adierazpide bereziak eta hizkuntza bakoitzeko egoera eta esperientzia guztiak.

2.– Bi hizkuntza ofizialetan eta gutxienez atzerriko batean konpetentzia eleaniztuna lortzeko –hizkuntzen curriculum integratu eta integral baten bidez–, honako printzipio hauek beteko dira:

a) Hizkuntzak irakasteak inklusioa izan behar du oinarrian; hau da, ikasle guztiek izan behar dute gai, ama-hizkuntza edozein dutela ere, eleaniztasunerako konpetentzia bere osotasunean garatzeko.

b) Hizkuntzak irakasteak erabilera izan behar du oinarrian, hizkuntzak erabilera sozial eta akademikoaren bidez ikasten baitira eta komunikatzeko beharrian pragmatikoek bideratzen eta

errazten baitute kodeaz jabetzea. Printzipio horren ildoan, hizkuntza eta edukiak integratzea da zentzuzkoena.

c) Hizkuntzak irakasteak komunikazioa izan behar du oinarrian; hau da, hizkuntza bakoitzeko egoera pertsonal, sozial eta akademiko adierazgarriak hautatu behar dira, eta ikasgela komunikazio-gune pribilegiatu bihurtu, ikasleek denetariko komunikazio-jardueretan parte hartzeko, eraginkortasunez.

d) Hizkuntzak irakasteak hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrera ona garatzea izan behar du oinarrian, kontuan hartuz hizkuntzak zein garrantzitsuak diren gizarteko harremanetan eta gizabanakoen garapen emozionalean.

12. artikulua.– Informazio eta Komunikazio Teknologiak txertatzea irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan.

1.– Oinarrizko Hezkuntza amaitzen duten ikasleek kompetentzia digital eta mediatikoa eskuratu behar ditu, alfabetatze edo gaikuntza funtzional osoa bermatzeko.

2.– Alfabetatze multimediatiko hori lortzeko, baliabide digitalak eduki behar dira arlo eta ikasgai guzti-guztietan, modu normalizatuan txertatu ahal izan daitezen irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan.

3.– Kompetentzia hori garatu ahala modu etikoan eta arduratsuan jarduten ikasteko –besteak beste kontuan hartuz pertsonen intimitatea, norberaren irudia eta sexu-joera eta -nortasuna, eta aurre eginez sexismoari eta arrazakeriari–, alderdi horiek ere sartu egin behar dira irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuen eta -egoeren plangintzan.

4.– Informazio eta Komunikazio Teknologiak irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan behar bezala integratzeko, irakasleen kompetentzia digitala sustatuko da; hau da, ikasgelan baliabide digitalak erabiltzeko prestakuntza eta ikasteko eta hezkuntza-baliabideak elkarrekin erabiltzeko komunitate birtualak sortuko dira.